

TAU BASKONIA. Unicaja hirugarrengez hartu zuen menpean, Zurbaoko pabiloia bete zuten zaleen laguntzarekin

Baskonia, berriro historia eginez

ACBko txapeldun berria da Gasteizko taldea, eta, Kopa ere irabazita, bere kirol ibilerako denboraldirik onena bete du



DAVID AGUILAR / EFE

JOKALARIAK, POZARREN. Tauro jokariak, Elmer Bennett guztien buru dela, ospakizunean murgilduta, ACB Ligako finala irabazi ostean.

UNICAJA MALAGA

Talde handi baten argi-itzalak

Tau Baskoniaren garaipen ikusgarriak ezin du alde batera utzi Malagako Unicajak egindako lanaren garrantzia, eta hori azpimarratzeko da. Maljkovicen taldeak ACBko gailurrean toki bat duela agerian utzi zuen atzoko partidari, eta talde gutxi duten zintotasunarekin eutsi zioten partidari eta finalari, errazena tentsio guztia galtzea bazen ere. Nolanahi ere, finaleko partidetan agerian gelditu da oraindik asko heldu beharko duela goi mailako klubazateko.

Klub handia izateko ume-keriak alde batera uztea da lehen pausoa, eta Angel Fernandez Noriega Unicajako presidentea ez da jabetu horretaz oraindik. Ez zen etorri Gasteizera, eta bere jokalariei sarien banaketara ez joateko agindu zien Malagatik bertatik. Horretaz gain, ezin da estali taldearen ezintasuna epaileen lanarekin, hutsak ez onartzeak jarrera zekena nabarmentzen baitu.

Presidentearen jarrera tamalgarria izan bazen ere, Maljkovicek zein Unicajako jokalariek jarrera bikaina izan zuten beren adierazpenean. Entrenatzaileak zein Berni Rodriguezek Gasteizko taldea zoriundu zuten, eta, bide batez, taldeko presidenteari jarraitu beharreko bidea erakutsi zioten.

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Gogoangarria. Ezin da laburbildu beste modu batean Zurbaoko pabiloiko astearteko giroa. Tau Baskoniak, urteetan pilatutako esperientzia eta adorea erakutsita, hirugarrengez hartu zuen menpean Unicaja Malaga (93-83), eta ACB Liga irabazi zuen, bere zaleen gozagarri. Partida hasi aurretik ikus zitekeen nola bukatuko zen gaua. Pabiloia leporaino bete zen partida hasterako, laneguna bazen ere, eta Ligako Kopa Gasteiztik ateratzen ez zutela utziko jakinarazi zuten euren oihuekin.

Partidaren hasierako minutua adierazgarria izan zen oso, hiru aldiz jarraian txikitu baitzuten Unicajako saskia Ivanovicenek. Hori ikusita, partida bertan behera gelditu zezatela oihu egin zuten hainbat zalek, Malagako taldea partidatik at zegoela baitzirudien. Maljkovicenek, ordea, zintotasun eta kiroltasunez, partidari eutsi zioten, eta partida berdintzearekin konforme ez eta aurrea hartu zuten partidari. Nolanahi ere, bigarren partidaren gidoia errepikatu zen jokoaren alor gehientsuenetan.

Unicaja Gurovic, Sonko eta Bullocken kalitatearen menpe

zegoen. Lan ona egin zuen hiruko horrek, baina defentsan, Unicajako pibotak falta asko pilatu zituzten hirugarren laurdenerako eta orduan hasi zen Tauren ikuskizuna. Laurden hori bukatzeaz 64-74 zen aurretik Unicaja, baina bost minututan zeharo irauli zuen Tau kontrako aldea, 14-0eko partzial baten bidez.

Eromena harmailetan

Foirest, Nocioni eta Obertoren artean lortu zuten partida gasteiztarren alde jartzea, eta orduan arte zaleek erakutsitako jarrera bikaina eromen bilakatu zen. Tau Baskonia bere historiako lehen ACB Liga lortzeaz zen, eta

hori ez da eguneroko kontua. Zale askok partidaren azken minutuak zutik ikusi zituzten, Euskal Herriko kirolaren historian toki bat lortu duen taldea txalotzeko.

Harmailetan giroa paregabea zen, baina Baskoniaren aulkian gertatzen ari zenari buruz ezer gutxi esan daiteke: Scola belarrikotik otoi egiten; Harisis haur baten moduan publizitatea jotzen, zarata ateratzeko; Corchiani minduta ez daukan oinaren gainean pozez jauziak ematen... Azken erasoetan Benettek airean mugitzen zuen ukabila ez zen jokaldia agintzeko. Liga poltsikoan zuten.

BILAKAERA IKUSGARRIA

Hamarkada batean, bost izar

Baskoniaren historia 43 urtekoa bada ere, azken hamarkadan eman du Europa mailako saskibaloiaren zeruan sartzeko azken pausoa. Aurretik Elkarte Kopa lortu zuen (84/85), baina Manel Comasen eskutik hasi zuen gorako ibilbidea.

1993/94. Herb Brownek talde sendoa utzi zuen Manel Comasen eskuetan, eta entrenatzaile harekin Europako Kopa eta Espainiako Kopako finala jokatu zituen Tauk. Lehen finalak zituen Baskoniak, eta bietan porrot egin zuen.

1994/95. Aurreko urteetako taldearen oinarriari kalitatezko jokariak gehitu

zizkion Comasek, eta espainiako Kopa irabaztea lortu zuten. Europako Kopako finalera berriro heldu zen Tau, baita bigarrengez galdu ere.

1995/96. Europako Kopako finala Gasteizen jokatu behar zela eta, Comasen jokalariek beren zaleen aurrean lortu zuten sari desiratua, PAOKen kontra.

1996/97. Ez zuten lortu ezer handirik Comasen azken urtean. Badalonako entrenatzaileak Bartzelonarako bidea hartu zuen denboraldi bukaeran.

1997/98. Scariolok hartu zuen taldearen ardura, eta ACBko finaleraino eramane Baskonia, baina Chichi Creusen TDKren kontra erori ziren ACBko final handian.

1998/99. Scariolo Madrilera joan aurretik Gasteizko taldeak bigarren Kopa lortu zuen, Caja San Fernandezaren kontra. Gasteizko taldeari ACB ligan handien artean sartzeko falta zitzaion bul-tzada eman zion lorpen hark.

1999/2000. Entrenatzaileekin arazoak egon ziren Scarioloren tokia betetzeko. Salva Maldonadok ez zuen Tauren handinahikeriarekin bat egiten, eta Lamas heldu zen, inolako emaitzarik gabe.

2000/01. Dusko Ivanovicen heldu zen maila goreneko saskibaloia Gasteizera. Txapelketarik lortu ez arren, maila paregabea eman zuen taldeak. Euroligako finalean Kinderren kontra galdu zuen.

2001/02. Baskoniaren denboraldirik ikusgarriena. Bere zaleen aurrean Kopa lortzeaz gain, ACB Liga ere lortu du, Unicajari irabazita. Euroligan ere maila zoragarria eman du.